

Piratetan

• AINGERU EPALTZA •

[[IDAZLEA]]

Joan den astetik hona ez da giro etxean. Bazkaldu bitartean, seme gazteenak eta biok isilik barrandatzan dugu elkar, nork bertzearen mugimendu tikienari erne. Ederki dakigu oharkabeenak galduko duela gure eguneroko lehia. Bortzetik lautan asekeriak galtzen nau: agudo husten hark bere plater erdizka betea, nirea oraino mukuruturik dagoelarik. Ohartu orduko, hura jabetu da etxeko ordenadoreaz, eta orduan alferrik zaizkit erre-guak eta mehatxuak. Jala egiten dio bere aitak euskal literaturari egin behar dion ekarpen distiratsuak, eta, bertzalde, badaki ez ditudala agintzen dizkiodan zigor-rrak beteko. Erran gabe doa —beharko!— bortxaren aukera baztertua dela. Latza da aita modernoa izatea milurte hondar honetan.

Gure seme gazteenak zortzi urte egin zituen joan den astean. Haren eskaria baitzen, Erdi Aroko gaztelu bat oparitu genion, orduko soldado eta zaldunen errepika ñimiñoekin batean, beren armak, kaskoak, lumak, zaldiak eta guzti. Katapultak ere bazetorren kaxan, baita halako ariete gisako bat, gazteluko murruei ekin ahal izateko. Dena nahi ahala desegin eta berregin daiteke, baita panpinatxoak ere behin eta berriz janzen eta erantzten ahal. Deus ikustekorik ez gure haurretako figura zurrin zuri-beltzekoekin. Oro kolore eta mugimendu, neroni ere,

Luis Beaumont bilakatu eta Nafarroako errege ene jaunarendako —baina arrakasta handiagorik— Cherbourgeko harresiak defenditzeko gogoa sortzen zait hura ikusi hutsez. Alabaina semeak gaztelua ahanztzia du bere gelako zoko batean.

Bertze baten oparia da horren guztiaren errudun: disko mehe zulodun bat, alu zitalla, haurra pirata bilakatu duena. Gure semea ez baita gehiagorekin seme, zori-oreko CD-ROOMa sartuta ordenadorearen pantailari so dagoen. Morgan da goizez, eta Drake arratsalde, eta Olondarra edo Bizar-beltz arratsean. Kortsario frantsesa ere gerta daiteke, edo —nire iritzia-ren damuz— merkataria espainiarra. Holandako ban-

dera hautara du, orobat, baita Britainia Handiko erregerena ere. Eta badaki gaurgero, bere hautuak ondorioak izanen dituela, alegia, Herbeheretako itsas-lapurren kapitaina izatea aukeratuz gero, ez diotela La Habanan eta Valparaiso ongi-erorrik eginen, eta halaber, Parisiko maiestate kristauaren zerbitzuko itsasontziak hobe duela Nassauko portutik urrun, kanoikadaka hondoratu ez badute. Hazten denerako, ikaskizun garrantzitsua jaso du, gainera: etsaiari branka erakutsiz ez, baizik zeharka oldartu beharra. Tratatuan ikasten ari da, bertzalde, eta ahaleginetan aritzen zaigu hurrengo itsas-bidaiarako beharrezko izanen dituen uraren eta bizigarrien truke behar baino dobloi gehiago ken ez

diezaizoten portu itxuraz lagunetan (oraindik marro egiten diote). Erran gabe doa, Karibe aldeko geografiak eta historiak sekretu guti dutela jadanik gure tikiarendako, eta itsasoaren eta nabigazioaren inguruko hiztegia ikaragarri aberastu duela egun gutitan. Erdaraz, bistan da.

Bertze inongoa ezin izan, gure seme-alaben hizkuntz-poliziak izateko bokazioari amore eman diogunok prolema bat gehiago dugu begi parean. Harrigarria da historia nola errepikatzen den.

Gure aita zenaren adinkide batekin solastua naiz berriki. Hain liburuzalea izanik eta euskaraz hain poliki eginda, bere hizkuntzan irakurtzeko ohitura ezaren arrazoiak galdegin nion. «Nire umetan

—arrazoitu zidan— ez zen haurrendako libururik euskaraz». 36ko gerla aitzinekoa garaiaz ari zen, ez debekuz jositako ondoko urte ilunez.

Gure belaunaldia, berriz, euskara ikusentzunezkoetan sartzearen lekuko izan da. Telebista ikus dezake eta irratia entzun. Zinea, tamalez, arrunt guti. Bideoa, zertxobait gehiago, erakunde ofizialen bultzadaz. Nago, ordea —arrazoia askotarikoak dira—, sartze horren onuradunak gazteagoak gertatu direla, inor gertatzekotan, guretariko aunitzendako berandu etorri baitira horiek guztiak.

Galdera da bertze belaunaldi bat galduko ote dugun orain, euskarri berriekin, puntako teknologiko bertze adar batzuetan gertatzen ari den gisara. Bai, hiztegiak baditugu, eus-

karaz ikasteko metodoak, lokuzio eta atsotitz bildumak, hango eta hemengo euskaldunen azken testigantzak ere bai, bertsolaritza, animaliei buruzko entziklopedia... Didaktikatik edo lanerako lanabes hutsetik harata doan eremu ludikoagoan,

ordea, ez da deus, Madrilgo ekoizte-txeren batek, gaztelaniaz ez ezik, Estatuko hizkuntza tikiagoetan ere aritzeko aukera ematen duen bi-hiru ale, edo Txirri, Mirri eta Txiribitonen ahalegin txalogarri baina oraindik bakartia kenduta. Onddoak bezala ugaritzen ari diren informatika-dendetako apalak, berriz, hiru-lau hilabete guztietan berritu behar izaten dituz-

te, azken nobetateei leku egin ahal izateko. Eta ez da dena martiziano-hiltzaileendako bazka. Gure ikastola eta eskoletako haurrek horrekin etsi beharko dute beren informatika-gela ponpoxoetan ikasia etxean garatze-rakoan?

Semea, Eguberri ez hain urrunetan eskatuko dituen CD-en zerrenda egiten hasi zaigu dagoeneko. Izanen du non hauta: Mendebaldeko urruna, espedizio polar bat, Egiptoko piramidea, Txinako harresi handia... baita orain bazterrean utzi duen Erdi Aroko gaztelua bezalakoa ere, jostagai eta aldi berean ikasbide. Bizkitartean, hizkuntz politiketako ardura-dunak, argitaletxeak, idazleak, komikigileak, musikagileak, hango eta hemengo elkarteak, goxo-goxo lo.

“
*Gure seme-alaben
hizkuntz-poliziak
izateko bokazioari
amore eman
diogunok prolema bat
gehiago dugu begi
parean. Harrigarria
da historia nola
errepikatzen den*

“
*Galdera da bertze
belaunaldi bat
galduko ote dugun
orain, euskarri
berriekin, puntako
teknologiko bertze
adar batzuetan
gertatzen ari den
gisara*

...hemeroteka


Aldi berri baten atarian

[EDITORIALA]

Mende-amaiera mundu-amaierarekin lotu izan da behin baino gehiagotan eta mende-etako tradizioari ezin gizarte modernoak muzin egin. Izan ere, besteetan baino beranduago bada ere, gero eta gehiago dira mende-amaiera gerturatu ahal munduaren amaiera

iragartzen dutenak. Paco Rabanne, Pasaian jaio eta Parisen bizi den jostun ezaguna, horien artean: bere diseinu berriekin Parisen azken desfilea antolatu eta erretiroa iragarri zuen. Zergatik? galdetuko du batek baino gehiagok; ba hona hemen zergatia: abuztuaren 11ko milurteko azken eguzki-eklipsearekin batera desagertu egingo omen zen Paris eta bere ingurua. Gu ere bai? Batzuek baietz zioten. Lerro hauek irakurtzen ari bazara aipatu hola-kaustoa gaingitu duzu-

la esan nahi du, baina ez gehiegi poztu, iragarle gehiago sortuko baita han-hemenka iragarpen bertsua eginez. Utz ditzagun kontu horiek albora, gurea zientzia eta teknikaren berri ematea baita, eta ez igarleei buruz jardutea. Gainera, munduaren amaiera edo suntsipena era askotara gerta daiteke, eta horietako askori aurre egitea gure esku dago. Horretarako aski da askotan Naturarekiko dugun portaera suntsigarria zuzentzea eta eraberritzaile bilakatzea edota, gu-



txienez, berarekin ez hain degradatzaile izatea. Eta, hori bai, hori gure esku dago.

Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkaria era-

kargarria eta atsegina egitea ere gure esku dago, eta horretan ahalegintzen gara hila joan eta hila etorri. Baina badakigu ere ahalegin

horretan ezin gaituela loak hartu, eta horretarako noizbehinka berrikuntzak egin behar ditugula. Horietako baten atarian gaude.